



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Gobierno Municipal
Udal Gobernu



DONOSTIAK BERE BIDE GARBIKETA ZERBITZUA INDARTU DU HIRIA GARBIAGO EDUKITZEKO

“Garbitu” da Donostiako garbiketa zerbitzuaren datozen urteetarako marka berria. Hiriko alkate Eneko Goiak, Bide Publikoetako eta Ingurumeneko zinegotzi Alfonso Gurpeguik eta garbiketa zerbitzuaz arduratzen diren enpresen ordezkariak aurkeztu dituzte Kurasaalen datozen urteetan indarrean egongo den kontratu berritik etorritako berrikuntza nagusiak.

Hitz joko txiki bat egiten da “garbitu” hitzarekin. Garbi hitzari grafia eta kolore desberdinarekin “tu” amaiera erantsita, kontua da donostiarra inplikatzeko hiria garbi edukitzeko helburu horretan.

Eneko Goiak, Donostiako Alkatea, esan du Kurasaaleko aurkezpenean: “hiria txukun eta garbi mantentzea ezinbesteko helburua da. Herritarrek beti luzatu digute hiriaren garbitasunean esfortzu berezia egitea nahi dutela.”

“Aurten Europako Kultura Hiriburutza gara gainera, eta jende askoren begiak izango ditugu gure gain jarrita. Horregatik, gure hiriko kale eta bazterrak garbi eta dotore mantentzeko ahalegin berezia egingo dugu” esan du Goiak.

“Esan nahi dut, halere, udalak bere ardura hartu behar duela eta guri dagokigun lana behar bezala egin behar dugula. Baina gutako bakoitzak ere, donostiar bakoitzak, bere ekarpena egin dezake hiria txukun mantentze aldera eta kaleak eta plazak garbi izateko. Gutako bakoitzak ere badu bere eskuan hiriaren mantenua eta garbitasuna”.



Donostiako garbiketa zerbitzuaren irudi berriaren aurkezpenean, Bide Publikoetako eta Ingurumeneko zinegotzi Alfonso Gurpeguik gogora ekarri du FCC eta Serbitzu enpresek osaturiko ABEEri esleitu zaiola zerbitzua 4 urterako, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin, eta 13.178.749 eurotan urteko. Horrek esan nahi du biztanle bakoitzeko 75 euroko gastua eragiten dela urtean Donostiako hiria garbitzeko eta mantentzeko. “Gogoan eduki behar dugu hiriaren garbiketan zenbat inbertitzen dugun, eta horrenbestez, ahalik eta gutxien zikindu”

Eguneroko erraztatze, urez garbitze, espaloi garbitze... lanak sartzen dira kaleen garbiketan. “Kontratu berriak 33 ibilgailu gehiago jarri ditu hiria baldintza hobereenetan edukitzeko helburua bete ahal izateko, hauxe da, lehen 83 ibilgailu zeuden eta kontratu berriarekin 116 izango dira, erraztagailuak, zisternak, urez garbitzeko makinak eta beste”, adierazi du Bide Publikoetako eta Ingurumeneko zinegotziak.

Baliabide mekanikoen atalean, berrikuntza nagusietako bat da erraztagailu elektrikoak erabiliko direla Alde Zaharra eta gune Erromantikoa bezalako eremuetan. 13 triziklo elektriko ere jarri dira, mugikortasuna hobetuta langileak eremu gehiagora eta azkarrago iritsi ahal izateko. "Horixe da azpimarratu beharreko berrikuntzetako bat. Triziklo elektriko horiek jarri dira garbiketako langileak eskuz eramaten zuen ohiko orgaren ordean. Hemendik aurrera brigada horiek eskuzko orga lagunduak eta triziklo elektrikoak eramango dituzte, eta horri esker zerbitzuaren errendimendua handitu egingo da, ingurumenean eraginik izan gabe eta langileen lan kalitatea hobetuz".

"Esan behar da, bestalde, aurkezten diren baliabide material horiez gain, giza baliabideak ere gehiago izango direla", adierazi du Gurpeguik. "Bide garbiketa zerbitzuan 248 langile ari dira, haxe da, orain dela urte bat indarrean zegoen aurreko kontratuarekin baino % 7 gehiago. Batez ere igandeetan eta jaiegunetan jarri dira giza baliabide gehiago, orain arte baino % 33 gehiago, hain zuzen ere".

Gainera, garbiketako brigadek beste garbiketa eta mantentze lan batzuk ere egiten dituzte hiriko igogailu publikoetan, urmaeletan, parkeetan eta txorkoetan, eskaileretan, lurpeko eta aireko igarobideetan, haur parkeetan, hustubideetan, pintadetan...

Hiriko paperontzien homogeneizazioa da beste berrikuntzetako bat. Gaur egun 4.035 paperontzi daude, baina modelo eta era askotakoak. Bakarkako 3.183 paperontzi aldatuko dira beste batzuk modernoagoak eta edukiera handiagokoak jartzeko. 4 birziklatze paperontzik osatutako gune ekologikoak ere aldatuko dira edukiera handiagoko modelo bat jartzeko, eta egungo kopurua bikoiztu egingo da gainera, lehen 16 eta orain 32 gune izango baitira.